

GUaiXE.net



Ordu aldaketa:
igandeko
03:00etan 02:00ak
izango dira



Sakanako Gida **ibarreko etxeetara banatzen hasi** dira aste honetan. Eguneroko martxarako **ibarreko informazio praktikoa** ematen du



Sakanerria >> 5



Langabeziatik

ekintzaietzara

Gurasoak Mintzakide izatera gonbidatu dituzte

Astean ordu batez beste gurasoekin plazaan, parkean edo beste nonbaiten elkartu eta euskara praktikatzeko deia >>9

Gaur aurkeztuko dute Etxarrikoahotsak.com web orria

Etxarri Aranazko ahozko ondarea jasotzen du web orriak, 70 lekukotza baino gehiagorekin >>7


Joseba Fernandez irristalaria Espainiako txapelduna

Pistako 300 m-ko erlojupekoan >>11



Bakaikun gaztain moztea etzi

>>7



Irurtzunen jokatu da Sakanako herri lasterketa

>>7



Nafarroako Gobernuak Hiri hondakin Kudeaketa Plan Integral berria egingen du

>>5



Tormesko itsumutilaren berri emanen du El Brujok

>>15

ZORION agurrak

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingresatuta egin daiteke.

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!




LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Aluminioa • P.V.C • Mistoak



Planeta urdinerako
Green Technology

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



Enara Garcia Mateo
MILA KILO ZORION, printzesa!! Dagoeneko 4 urte. Muxu handi-handi bat familia guztiaren partetik.

Jurgen ZORIONAK bihurritxo!!!! dagoeneko 2urte, segi beti bezain maitekor. Muxu handi bat Ekhi, Mattin, aitaxo eta amatxo.

Maddi Zuñiga Balda
ZORIONAK pinpirina! Azkenean! Gertu gertu duzu eguna! 7 muxurik handienak gure altxorarentzat!

Ane ZORIONAK poliitta! 7 urte larunbatean! Prestatuko duzu merienda goxoa, ezta? Mila muxu etxekoan partez.

Bazkideek deskontua

Bakarra:

3,50€

Bikoitza:

7€

lastailak

24-30

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Donostiako musika eta dantza eskolako aitzinako musika taldea. Lastailaren 25ean, larunbatean, 19:30ean (meza ondoren) Irurtzungo elizan.

Terry Oldfield eta Soraya. Lastailaren 25ean, larunbatean, 20:00etan Arbizuko ekokanpineko Amari yoga magiko eskolan.

Erkudengo Ama abesbatza. Lastailaren 26an, igandean, 12:00etan Aralarko Santutegian. 12:30ean hasiko den meza nagusian ere kantatuko du.

Antzerkia

Action man. Lastailaren 24an, ostiralean, 21:30ean Irurtzungo kultur etxean. **Ylana.**

Burutik jota. Lastailaren 25ean, larunbatean, 17:30ean Etxarri Aranazko kultur etxean. **Trokolo.**

Lazarillo de Tormes. Lastailaren 25ean, larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Rafael Alvarez, El Brujo.**

Ipuin kontalaria

Osaba otso. Lastailaren 24an, ostiralean, 18:30ean Altsasuko lortia



Burutik jota antzezlan.

kultur gunean. **Lur Usabiaga.**

Ipuinen unea. Lastailaren 30ean, ostegunean, 17:00etan Etxarri Aranazko liburutegian. **3 urtetik aurrera.**

Zinema

Madre e hijo. Lastailaren 24an, ostiralean, 21:45ean eta lastailaren 26an, domekan, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

El hombre más buscado. Lastailaren 24an, ostiralean, 22:00etan eta lastailaren 26an, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

Maia erlea. Lastailaren 26an, domekan, 17:00etan Altsasuko lortia

kultur gunean.

Bertsolaritza

Uxue Alberdi eta Oskar Estanga. Lastailaren 25ean, larunbatean, 19:00etan Egiarretako Itxasperri ermitan. 21:30ean Egiarretako elkartearen bertso afaria.

Literatura

Kristalezko begi bat (Miren Agur Meabe). Lastailaren 30ean, ostegunean, 19:00etan Etxarri Aranazko liburutegian. **Etxarri Aranazko irakurketa taldea.**

Tailerrak

Sukaldaritza. Lastailaren 25ean, larunbatean, arratsaldean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Gaztaina hazien tailerra. Lastailaren 26an, domekan, 12:30ean Bakaikuko elkartearen.

Euskararen arnaguneak. Lastailaren 28an, asteartean, 19:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean. **Etxarri Aranazko Udala eta EHE.**

Mendi irteerak

Astun-Artiga. Lastailaren 26an,

igandean, 6:00etan Olatzagutitik. **Sakanako Mendizaleak.**

Euskaraz bizi nahi dut. Lastailaren 26an, igandean, 9:30ean Egiarretako Itxasperri ermitatik. **Arakilgo eta Irurtzungo Udalak eta Aizpea euskara taldea.**

Nerbioi ibaiko iturburura. Lastailaren 26an, igandean, 9:00etan Etxarri Aranazko ikastolatik. 7 km. **Sakanako ikastolen mendi taldea.**

Bizikleta irteerak

Bilbao-Muskiz. Lastailaren 26an, domekan, 7:00etan Altsasuko autobus geltokitik. 55 km. **Sakanako Mankomunitatea.**

Irteerak

Gaztain mozte. Lastailaren 26an, domekan, 10:00etan Bakaikuko Mandubitetik.

Erakusketak

Gaztain mozte. Lastailaren 26an, domekan, Bakaikuko elkartearen.

Altsasuko III. Arte Azoka. Azaroaren 2ra arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domekan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean.

800koak izotz eta harri baino gehiago. Baltistanen emakume izatea. Lastailaren 25era arte, 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

Gure sustraiak ardazten. Lastailaren 26ra arte, Altsasuko Basoko Mari dandan. **Paz Treuquil maputxearen margoak.**

Ziordiko liburutegiko azken 15 urteetako ekintzak. Abenduaren 29ra arte, astegunetan, 16:00etatik 20:00etara Ziordiko liburutegian.

Bestelakoak

Etxarrikoahotsak.com web orriaren aurkezpena. Lastailaren 24an, ostiralean, 19:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean. **Etxarri Aranazko Udala.**

Gazte gunearen ate irekien eguna. Lastailaren 26an, domekan, Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Lastailaren 24an, ostiralean, 20:00etan Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Lastailaren 26an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Ostiralero SAIOA 9:30etik 10:30era
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

107.3 FM
beleixe online
www.guaixe.net

Piztu irratia!

ASTEBURUKO AGENDA

ASTEKO ERREPASOA:

albisteak, kirolak,
Martin Mundiñano errealzalea, Ainara
Ladron, Olaztiko mintzalagunak,
www.etxarrikoahotsak.com...

Esataria: *Alfredo*

Domu Santu egunez, hilerriak bizi

Sakandarrok Domu Santu egunean loreak hilerrietara eramateko ohiturari eusten diogu. Horregatik, garai honetan aukera ezberdinak izango ditugu, era guztietako eskakizunei erantzuteko.

Gure web orria bisitatu
www.floristerialorea.net

lorea
lore eta belardenda
948 46 74 26 | San Juan 52
685 72 21 12 | 31000 Altsasu

%5^{en} deskontua
Enkarguak urriaren 26a
baino lehen ordaintzen badituzu

Urriaren 25ean goizez eta arratsaldeaz zabalik

Armando Guillen
Loreak eta landareak
Asteazkenero Altsasuko merkatuan
678 451 905 · Pueyo

MENDILORE

Salmentan: jarroak, jardinerak, arte florala, zure lorategirako behar duzun guztia, lurra, aromaterapia, infuzioak, infusioak, figurak, baratzarako herramintak eta aleak, garaiko landareak...

Lore sorta bereziak egiten dira

Ordutegia: 9:30etik 20:00etara
2. poligonoa 63.partzela • Bakaiku • 647 247 205

izARTE
Centro de Jardineria

Lore bizia: arrosa txikia, krisantemo, erikak...
Lore moztua: gladioloak, arrosak, krabelinak...

Lore zentru eta konposizioen erakusketa zabala

Lastailaren 27tik azaroaren 1era
9:00etatik 20:00etara

Isasia industrialdea (negutegia) Altsasu
948 467 947 / 637 443 987
/ 670 063 093
jardineria.izarte@gmail.com

Goiko
LOREDENDA

SANTU
GUZTIETARAKO
LOREAK

Aukera eta preziorik onenak!

Lore sorta, zentru, konposizio, krisantemo eta loredun landareetan.

%20eko deskontua lore moztuan.

Urriaren 24tik azaroaren 1era 8:00 - 20:00 ZABALIK.

ENKARGUAK : 948 564 260 / 610 098 595
GARTZIA XIMENEZ 33 ALTSASU

Krisantemoak
4,95€
-tik hasita





Benjamin Zufiaurre Goikoetxea

ZUZENKETA



Aurreko ostiralean Altsasuko III. Arte Azokako parte-hartzaileen zerrenda ematerakoan okertu eta Argiñe Berastegi ez genuen aipatu.

astekoa

“Diada”n ikasitakoa

Diada eguna Bartzelonan. Benetan adierazpen zoragarria. 1,8 milioi bizilagun kalean udaltzaintzat. Beste batzuek 0,5 milioi... lau katu. Balorazioak soberan. Diagonal eta Gran Via, lau eta sei bide, gehi beste bi albo bakoitzean, gehi espaloiak eta tar-teko zonalde irekiak, zabaleran

ehun pertsona edo gehiago metro erdiko hilerabakoitzean. Eta hori hamaika kilometrotan. Guztira 2 milioi pertsona. Horretaz gain, anarkistek “V”a “A” bihurtu nahi zuten, Urgel kalea gurutzatuz. Lastima ez ziren nahikoak!

Diadaren atzetik, Eskoziako erreferenduma. Eskozian diru-

denez ez zen independentzia aurrera atera 61 urtetik gorako jendea izutu zelako, eta emakumeak gizonak baino gehiago, analisi ezberdinen arabera. Katalunian Kontsulta Legea onartu ondoren, salgai dagoen Konstituzioaren izenean, Eskorileko Espainiar Gobernuak ezeztatu

du. Zer demontre nahi?

Batzuk beti izan gara intsumisoak, gazteak ginela hippiak eta ekintzaileak. Geroztik haizetuak. Eta 61etik gora, intsumisoek katalanek bezala, beldurrik ez. Katalanek independenteek, Erkidegoek, eta Nafar batzuek ere, Sakan-darrak tartean, ez duguzeresanik

OPU Star Nafar probintzi honetan. Kanariarrak ere kontent ez daude eta erreferenduma han ere ez ez-tatua izanen da. Azkenean denok alde, Andorrara, Frantziara, Afrikara, zergatik ez?

DIADAN IKASITAKOA: denok batera gauzak defendatzen baditugu, bideak aurkitzen dira.

barrutik kanpora

Etxeandia eta Mujika

Ez dugu ezer berririk esaten Estatu espainol eta frantsesean legea betearazi beharko lukeenak berak legeak urratzen dituela esaten badugu. Eta ez dugu ezer berririk esaten, gure senitarteko presoen kasuan, lege-hauste eta eskubide-urraketa horiek egunerokoak direla esaten badugu.

Baina, errepresio horren azken helburuetako bat da lege-hauste horien kontrako salaketak isilaraztea eta salatzaileak kriminalizatzea. Berdin dio horretarako lege-haustea lege bihurtu behar

badu ere. Bada ETXERATEN helburuetako bat da gure senitartekoek bereziki, eta gizarteak orokorrean, jasaten dituzten bizi baldintzak eta erasoak salatzea euskal gizartearen aurrean.

Eta horretara gatzokizue, zoritxarrez, beste behin ere, Estatu horien politika ankerraren azken bi gertakarien berri ematera eta salatzeri. Batetik, Joxe Migel Etxeandiari psikologoaren bisita galarazi izana Topasko espetxean (Salamanca); eta, bestetik, Nagore Mujika senidearen atxi-

loketa Villenako espetxean (Alacant).

Bi hilero bezala, Jose Miguel Etxeandiak eta bere psikologoak elkarrekin terapia saio bat egiteko eskaria egin zuten hiru aste-ko aurrerapenarekin. Irailaren 21ean psikologoak espetxeko bidea hartu zuen, baina baime-na jakinarazi ez ziotenez, bidaia erdian Euskal Herrira bueltaztea erabaki zuen. Hilaren 22an, berriz, "segurtasun" taldeko kide batek psikologoari bisita onartua zegoela jakinarazi zion eta, pre-

soari 19an komunikatu zitzaizola idatziz; ez hori bakarrik, gainera, psikologoari leporatzen diote bisitara agertu ez izana; izan ere, gerora jakin denez, 13:00ak aldera funtzionario batek presolari bisita baimendua zuela esaten zuen kopia bat erakutsi zion; baimen agiriaren data 19koa zen.

Guardia Zibilak Nagore Mujika, euskal preso politiko baten senidea, atxilotu du bere sei urteko alabarekin Euskal Herritik 700 bat kilometrotara zegoenean. Justifika ezina da epaile baten zita-

zioaren izenean pertsona bat atxilotzea, epailearen aurrean aurkezteko komunikatzearekin nahikoa zenean, are gehiago duela 22 urteko zerbaiten harira izanik. Asteburuan izateak, gainera, bi egun polizia etxean pasatzera behartu du Mujika, eta umea hau guztia bizitzera.

Etxerat elkartetik senideen kontrako jazarpina berehalakoan bukatzea exijitzen dugu.

ETXERAT

hara zer dien

Hezikidetzaren dramatizazioaren bidez

Iñigo Aritza Ikastolako eta Zelandi Ikastetxeko ikasleak antzerki tailerretan arituko dira aurten ere, hezikidetzaren dramatizazioaren bidez jorrazteko.

Egitasmo honek 2004 urtean eman zituen lehenengo urratsak, Altsasuko udaleko kultura eta berdintasun zerbitzuti abiatuta. Altsasuko emakumeen eta gizonen arteko berdintasun planeari errotuta dago, hain zuzen ere, 4. ildo estrategikoaren 1. pro-

graman: koedukazioa eta orientazio ez-sexista, hezkuntza ziklo guztietan.

Egun, Lehen Hezkuntzako 2., 4. eta 6. mailako ikasle eta irakasleek hartzen dute parte. Nafarroako Antzerki Eskolak klaseak ematen ditu eta Altsasuko Udalak finantzatu, Nafarroako Gobernuak lagunduta, INAFI-ren bitartez.

Proiektuan parte hartzen dutenek berebiziko garrantzia ematen diote heziketari. Izan ere, ezinbes-

tekoa da berdintasunean eta sexu-gatiko eta genero-gatiko bereizkeria ezan oinarrituriko jendarte eredu berri bat eraiki ahal izateko. Halaber, ezinbestekoa da ikastetxetan hezikidetzaren balioak bultzatzea, bide ezin hobea baita generoen arteko desberdintasuna eta emakumeekiko indarkeria ezabatzea.

Horiek horrela, hezikidetzaren xedea da neskek eta mutilak izatera eta identitate propioa, feme-

ninoa zein maskulino, garatu dezaten lortzea, aukera berdintasunean oinarrituta eta sexu estereotipoak eta orientabideak baztertuz, denon artean gure jendartearen garapenaren eta ongizatearen alde lan egiteko.

Hezikidetzaren oinarritutako heziketak mutil eta nesken arteko harremanak orekatuak izatea du helburu. Gatazkak ebazteko jarraera baketsuak sustatzen ditu, elkarrekin errespetuan, elkarrikiz-

tan, adiskidetasunean zein mutil eta nesken arteko elkarlanean oinarriturik. Irakasteko metodologia dramatizazioa da, batik bat jolasean oinarritzen delako eta honen bidez, neska zein mutilak primeran pasatzen dute, oso gustura aritzen dira bizi diren mundua irudikatzen eta mundu hobea bilatzen eta baita amesten ere.

Emakumeen Bilgunea

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano eta Eñaut

Arribengoa Apaolaza
ZUZENTZAILEA: Oihana Zubeldia
ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • bierrik@guaixe.net
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
 s a k a n a

BAZKIDEAK 

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
 HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
 ETA KULTURA SAILA
 Hezkuntza Politikako Salburuordetza

SAKANA

Sakanako Gida etxeetan

Bierrik fundazioak argitaratutako gida praktikoa egun hauetan banatzen da Sakana guztiko etxeetara

Bierrik fundazioak argitaratu du Sakanako Gida, ibarreko zerbitzu, enpresa, denda eta autonomoen berri ematen duena. Sakanako jardun ekonomikoaren berri ematen duen aurreneko gida da Bierrik fundazioarena. Etxeetan paperezkoa banatzen ari da egunotan, baina gida bera www.guaixe.net/gida/ web orrian ere kontsultatu daiteke.

Bierrik fundazioko kudeatzailer Goizeder Anton Iturraldekan digunez, "Sakanako Gidan egunerokoan beharrezkoa den informazio praktikoa jasoa dago. Aldi bere-

an, ibarreko ekonomia-ehunaren aniztasunaz eta establezimenduen ugaritasunez jabetzeko balio du".

Sakanan bizi eta lan leloa gogora ekarri du Antonek: "Egunerokoan beharrezko diren zerbitzu eta establezimenduak ditugulako Sakanan. Haietan erosiz bultzada ematen diegu". Ibarrean erosketak egitean "herriarren arteko harremanak sustatzen ditugu ere, herriei aberastasun soziala emanez. Izan ere, herri osasuntsu batek gertuko merkataritza sarea izan behar du, herriarrek eta establezimendu txiki eta ertainek osatuta dagoena".

Antonek nabarmendu duenez,

Harremanetarako

Web orria sartu edo hurrengo edizioan atera nahi dutenek 948 564 275 telefonora hotsegin edo publi@guaixe.net edo publizitate@guaixe.net e-posta helbideetara idatz dezakete.

Sakanako Gida Bierrik fundazioak ibarreko merkataritzarekin, zerbitzuekin eta ekonomi jarduerekin duen konpromisoaren beste adibide bat da: "BeleixeGuaixe Txartelarekin zabaldu genuen bide hori. Gure fundazioko babesle diren 1.550 sakanarrek Sakana-



Dagoeneko buzoietan dago Sakanako Gida.

ko 80 establezimendu baino gehiagotan erostegatik egunero abantaila, deskontu edo beherapen inte-

resgarriak eskuratzeko aukera dute". Sakatxartela Asteburuak ere aipatu dizkigu.



Sortutako hondakin kopuruagatik ordaintzea

Horixe proposatu die Sakanako Mankomunitateak Nafarroako Gobernuari eta gainontzeko herrialdeei. Europak berriro dituen legeak betetzeko bidea dela dio

Europar Batasunak hondakin kudeaketari buruzko araudia zorrotz egin du. Legedi berriak arabera hondakin kudeaketa % 70 izan beharko da 2030ean (orain arteko helburua % 50ekoa zen 2020rako). Gainera, biohondakin bereizitako bilketa nahitaezkoa izanen da 2025ean. Horiek kontuan izanda, asteartean Nafarroan hondakin kudeatzeko eskumena duten mankomunitate- etako ordezkariak eta Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio-ko kontseilari José Javier Esparza elkartu ziren.

Esparzak eskatu zien "taldeko ahalegina" egiten segitu zezatela, biohondakin gaikako bilketa orokortzeko eta eraginkortasun-maila handia lortzeko (jatorri biologikoko materia organikoa, etxebizitzetako janari-hondakinak bereziki). Mank-eko presidente Aitor Karasatorre Muguruzak bat egiten du gaika jasotzeko kontseilariaren jarrera berri horrekin: "lehen ere Europak eta guk esaten genuena da".

Horrekin batera eskaera bat plazaratu zuen asteartean Karasatorrek: hondakin kudeaketarako ordaintzeko parametro aldaztea. Biztanle kopurua beharrezko sortutako hondakin kopurua izatea. "Hondakinak sortzen dutenek ordaindu dezatela. Sakanatik Tuterako hondakindegira eramaten dugun tona kopurua 7.000tik 3.500era jaitsi du. Hala ere, berdina pagatzen segitzen du, 545.000 euro". Mank-eko presiden-



Mankomunitateetako buruak Esparza kontseilariarekin elkartuta.

tearen iritziz "tarifa finkoak ez du birziklatzea bulkatzen. Eta adibideak jarri du: "Beran, Zangozan edo Tuteran ez dugu argiagatik edo uragatik berdina ordaintzen, kontsumoagatik baizik. Kutsatzen duenak ordaindu dezala". Aldi berean, Sakanan konposta egiteko planta bat eraikitzea eskatu zuen, atzera ere, "hondakin orga-

nikoen ibilbidea ixteko".

Plana eta errausketa

Egun indarrean den 201-2020 Nafarroako Hondakin Kudeatzeko Plan Integratuaren (NHKPI) erreformajorratu zuten bileran. Esparzak esan zuenez, Europako araudi berriagatik eta planean jasotzen den errebisiorako aukeragatik

NHKPI birplanteatzea jarri dute mahai gainean.

Karasatorrek gogora ekarri zuen Nafarroako Auzitegi Goreneko Administrazio-Auziekiko Salak Mank-en eta Sustrai Erakuntzaren helegitea onartu zuela eta NHKPI anulatu zuela. "Horretarako arrazoiak izan zen planean ez zela zehazten non jarri behar zuten errauskailua". Nafarroako Gobernuak Espainiako Auzitegi Gorenera jo du eta harkebatzi arte indarrean da plana. Karasatorrek azaldu digunez, "plana indarrean egon den lau urteetan ez da garatu".

Gobernuak errausketa baztertu ondoren, astearteko bileran Karasatorrek galdetu zuen zer gertatuko den Olatzagutiko porlandegiko balioztatze egitasmoarekin. Espartzak ez zuen esan zer ordezkatuko duen errausketa, baina iragarri zuen Parlamentuko Landa Garapen eta Ingurumen Batzordeak hainbat azpiegitura ezagutzeko bisitak egingen dituela. Baina ezer

Argibiderik ez

Atzo NHKPIko jarraipen batzordea elkartu zen. Talde ekologistek balorizazioaren eta Mank-ek hondakinak sortzeagatik ordaintzearen inguruan galdetu zuten. Ez zieten ezer erantzun. Nafarroako Gobernuak atzo aurreratu zuen bakarra da NHKPI berri bat egingen dutela, aurrekoanoinarrituta. Batzordekideek abendura bitartean proposamenak egiteko aukera izanendute. Ondoren etorriko litzateke herriarren txanda. Gobernuak maiatza aurretik onartu nahiko luke plan berria, baina ez zuen zehazterik izan.

gehiago zehaztu gabe. Argitzeko ekimenak aurreratu zituen Karasatorrek. Hark esan digunez, "konturatu dira Europako araudia beteta ez dutela nahikoa hondakinak errauskailurako, ez duela zentzurik halako azpiegiturarik".

Ezkaba S.L.
Suteen prebentzio sistemak

INSTALAZIO ETA MANTENTZE-LANAK

- Su-itxalgailuak
- Biesak
- Sute-zentralak...

ESKAINZA BEREZIAK

- Auzokideen komunitateak
- Ostalaritza
- Abeltegiak

Iruñea
948 382 271 - Maturak: 671 619 018
www.prevencionezkaba.com

Sorgiñak
taberna

LAKUNTZA

948 576 357

MAPFRE

Berehala bulego berrira itzuliko gara

MAPFRE ALTSASU

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM

948 563 354
jimazpr@mapfre.com
San Juan 52 behekoa
ALTSASU

>> **Etxeberri**


Frontoiko lanak aurrera

Eguraldiak lagunduta azkar batean hartu du itxura Etxeberriko frontoia estaliko duen egiturak. Egurrezko egitura jarrita eta frontisean egin beharreko lanak eginak dituzte kiskusgileak aurreko hiru asteetan. Etxeberriko kontzejuko buru Javier Martijak esan digunez, 25 bat egunetan lanak despedituak izanen dira. Horretarako, teilatua, porlanezko zoru berria eta atzeko pareta eta begiratokia eginen dituzte. "Lanak azaro erdialderako edo

bukatuko direnez, pilotaleku estalia Olentzero egunean mustutzea pentsatu dugu" esandigu Martijak.

Finantziak

Etxeberriko frontoia estaltzeko lanek 90.000 euroko aurrekontua dute. Arakilgo Udalak lanaren heren bat ordainduko du 28.000 euroko diru-laguntza baten bidez. Gainontzekoa, Etxeberriko Kontzejuauren bizkar geldituko da. Horretarako kontzejua bere bi



Gantxoak, buruz-gain eta bestelako kolpeak gero etorriko dira, lanak bukatzean.

pisuetako bat saldu dio han hiru urtez alokatua bizi zen pertsonari. Horrela, aurrekontuaren heren

bat estali du kontzejua eta beste herena bere diruzaintzako sobe-rakinarekin ordainduko du.

>> **Altsasu**

Sakanako azienda izan zen ferietako protagonista. Baina baita salmenta postuak ere.

Feria eguzkipean

Eguzkia lagun izan dute aurten Altsasuko feriek. Eta aitzakiarik gabe eguna baliatuz asko izan ziren domekan Altsasura etorri zirenak. Ganadu feria izaera man-

tenduz, abereak izan ziren protagonista. Sakanako 17 haztegi eta ko eta lautadako beste biko zaldi-azienda izan zen protagonista. Ferialeku kalean ikusgai izan

ziren, baina kioskoan zen epaimahaiaren aurrera eramateko ibilbi-deak askoren jakin-mina erakarri zuten. Epaimahaia Javier Garzia de Albizuk (Eulate) Gonzalo Azan-

Sariak**Hazitarakoak (12)**

1. Javier Lanz Alegriarena, Lakuntza.
2. Juanito Aldabarena, Satrustegi.
3. Jose Javier Arraiza Mezkirizena, Uharte Arakil.

Behorrek pottoarekin (9)

1. Javier Agirre Mundiñanorena, Etxarri Aranatz.
2. Javier Agirre Mundiñanorena, Etxarri Aranatz.
3. Jesus Gartzandiarena, Unanu.

Pottorik gabeko behorrek (18)

1. Patxi Legarra Zubiriarena, Zuhatzu.
2. Jose Javier Arraiza Mezkirizena, Uharte Arakil.
3. Martin Ezkurdia Barasoainena, Arbizu.

Bi urte bitarteko pottoak (8)

1. SAT Gonzalez Percazena, Ziordia.
2. Fermin Unzilla Arañarena, Etxarri Aranatz.

Bizpahiru urteko pottoak (3)

1. Inmaculada Azpilikueta Azkunerena, Lakuntza.
2. Juanito Aldabarena, Satrustegi.

Bi urte arteko bihokak (9)

1. SAT Gonzalez Percazena, Ziordia.
2. Erkuden Gabari Satrustegirena, Olatzagutia

Bizpahiru urteko bihokak (7)

1. Patxi Legarra Zubiriarena, Zuhatzu.
2. Jose Antonio Aldasoro Artiedarena, Etxarri Aranatz.

Altsasuko abere onena

Iñaki Larrearena.

>> **Arakil / Irurtzun**

Auto-enpleguaren berri izateko aukera

Cederna-Garalurrek nork bere lanpostua sortzeari buruzko tailerra antolatuko du Irurtzunen. Auto-enpleguari ekiten zer jarri martxan, zein ideia eta nola azalduko da tailer horretan. Azaroaren 17rako eta 18rako daude saioak iragarrita eta bi ordutegi aukeran: goizez, 10:00etatik 12:00etara eta, arratsaldez, 17:30etik 19:30era. Irurtzungeko kultur etxean izanen dira tailerrak.

IZEN EMATEA

948 56 70 10 telefonoan edo sakana@cederna.es ala sakana.admon@cederna.ee-postan.

>> **Altsasu**

Udalak bi baso aprobetxamendu eman nahi ditu

Barga, Altzania, San Pedro eta Basabeamendien bi urteko aprobetxamendu eta hobekuntza planari jarraituz, Altsasuko Udalen kante bidez herri basoko bi lote eman nahi ditu. Aurreneko lotea Balankaleku-Nikolastlategi inguruko 7.223,5 metro kubiko pagoz osatua dago eta 84.017,48 euroko balioa du. Bigarren, lotea, berriz Balankaleku-Asentun dago. 6.245,8 metro kubiko pagoz osatua, 77.166,86 euroko balioa du. Interesatuak euren eskaintzak udaletxean aurkeztu dituzkete hilaren 30era arte.

>> **Etxarri Aranatz**

Udalak Utzubar Txikiko 1. faseko lanak eman ditu

Etxarri Aranazko Udalak, 152.960 euroren truke, Utzubar Txiki edo heziketa eta kirol gunearen 1. faseko urbanizazioa HNV, S.A. eta Obrum CIBi esleitu die. Lanak azaroaren hasieran hasiko dira eta 10 asteko epea izanen dute lanak despeditzeko. Proiektua eta obra zuzendaritza Xabier Lopez de Uralde arkitektoak bideratuko du. Sistema Orokorreko 1. fase horretan, oinarriko azpiegiturak eramanen dituzte Utzubar Txiki: ur-hornikuntza eta saneamendu-sarea, argindarra, gasa, telefonoa eta bide zati batean zoladura berria jarriko da.

>> **Sakana**

Iñigo Aritza ikastolarendako Oinez Erronka

Nafarroa Oinezek aurtengo egitarauan zuen berritasunetako bat Erronka zen: Nafarroako ikastoletako DBHko 13 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzendutako ginkana modukoa. Erronkan parte-hartzaileek euren abilezia, indarra, abiadura, buruargitasuna, jakintza orokorra eta euskaltzaletasuna probatu behar izan zuten. Guztia erlojuaren kontrako borrokan.

Nafarroa Oinezeko zirkuituan barna hainbat proba gainditu behar izan zituzten izena emandako 10 taldeek. Tartean Sakanako Andra Mari eta Iñigo Aritza ikastoletakoak zeuden. Azken horiek izan ziren onenak eta etxera saria ekarri zuten (bakoitzaren dako tablet bana eta DBH3ko eta DBH4ko ikas-bidaia arako 2.000 euro). Andra Mari ko proba bate-



Iñigo Aritza ikastolako taldeko kideak. UTZITAKOIA

an (memorikoa) lehenak izan ziren eta beste batean bigarren izan ziren (ibaikoa), baina ez zuten finalerako sailkatzea lortu.

Sakanako ikastoletako talde-

ak eta Paz de Zigandako ikastolako elkarrekin joan ziren autobusean Erronkara. Esan digutenez, "giro ona izan zen eta Nafarroa Oinez bizitzeko beste modu bat da.

Sakanako taldeak**Iñigo Aritzako taldea**

Lander Bados Ganuza, Jon Aramburu Gastaminza, Maider Bengoetxea Gonzalez, Nahia Bengoetxea Garisoain, Hasier Galarza Pozueta, Ekai Urkijo Nuñez, Leire Bergera Aramendia eta Amañur Bengoetxea Ijuria. Ordezkoa Unai Irigoien Ausin izan zen. Kapitainak, berriz, Jon Lagos Olmedillo eta Aitziber Larrion.

Andra Mari ko taldea

Asier Jaka Fanega, Mattin Altzelai Karasatorre, Mikel Agirre Arregi, Unai Flores Palacios, Maddalen Mikeo Erasun, Aritz Jaka Fanega, Ian Ansotegi Yeregi eta Haritz Lizarraga Munarriz. Ordezkoak, berriz, Leire Estarriaga eta Naroa Mendiola.

SAKANA

Etxe erregionalen astea

Nafarroako Etxe Erregionalen Federazioak antolatuta pasa den astean Iruñean XXVI. Kultur astea ospatu zuten. Ospakizunetan parte hartu dutenen artean daude La Encina Extremadurako kultur elkarte altsasuarreko ordezkariak. Haiei, beste etxeetako ordezkariekin batera, harrera egin zien larunbatean Presidentzia, Justizia eta Barne kontseilari den Javier Morrasede.

SAKANA

Duela lau urteko gazteen kontrako sarekadaren salaketa

Horixe egin zuten asteazken iluntzean ehun bat sakandarrek. Segi-kide izateagatik erakunde terroristako kide leporatuta duela lau urte hainbat gazte atxilotu zituzten, haien artean Ainara Ladron arbizarra eta Imanol Salinas olaztiarra. Haiek jasandako torturak salatu zituzten. Baita inkomunikazioaldian "atxilotuen autoinplikazioa eta beste gazte batzuen kontrako inculpazioak eraikitzea" helburua dutela ere. "Inposatutako herri eredu baten jarraikortasuna mantentzeko, legeditik kanpo edozer gauza egiteko prest daude". Gazteen kontrako akusazio bakarra autoinkulpazioa besterik ez dela nabarmendu zuten.

Elkarretaratzetik adierazi zuten, "ez dute lortu euskal gazterriaren eta herriaren askapen borroka moteltzea". Aldi berean, gaineratu zuten "Euskal Herrian garatzen ari den prozesu demokratikoarekin konpromiso argia dutela". Konpromiso horri eutsiko diotela adierazi zuten.



Ehun bat sakandarrek eskatu zuten epaiketa politikoak etetea.

>> Altsasu

PSN zinegotzi postua betetzeko asmoz

Udaberri akaberan osatuko da udal berria. Ordura arte gelditzen diren hilabeteetan Altsasuko PSNk ez du udalean duen bi zinegotzi postuetako bat hutsik izan nahi. Braulio Salvador hilaren 4an bat-batean hiltzean zinegotzi sozialista bakarra gelditu zen udalean: David Medina. Hura zen sozialisten Altsasuko Udalerako zerrendako azkena. Zerrendan ordezkorik ez zuenez, PSNk kargurako pertsona baten izena proposatu beharko dio Hauteskunde Batzordeari. Hori guztia bideratzen hasi dira dagoeneko sozialistak.

LEGEGINTZALDI MUGITUA

2011ko udal-hauteskunde zerrendak osatzerakoan Altsasuko Talde Sozialistaren eta Iruñeko zuzendaritzaren artean gatazka sortu zen. Altsasutik proposatutako zerrenda betatu egin zuten Iruñean eta Maria Jose Notario buru eta independente asko zituen beste zerrenda bat onartu zuten.

2012ko ilbeltzean Maria Jose Notariok dimisioa eman zuen. Javier Donlo zinegotziak bere karguan segitu zuen, baina azaroan gaixotasunagatik baja eskatu zuen. Zenbait hilabetez PSNko ordezkariarik ez zen udalean izan, harik eta joan den urteko garagarriaren 26an Braulio Salvador Calvok (zerrendako bosgarrena) Donloren tokia bete zuen arte.

Altsasuko Talde Sozialistak Salvadorri alderdian baja emateko eskatu zion zuzendaritzari iraila hasieran, zinegotziak "alde bakarrekotasunez" jokatzeko zuela iritzita. Baina ez zen halakorik gertatu. Bestalde, bi urte behar izan zituen PSNk Notarioren ordezkoa udalean aurkezteko: David Medinak aurten go otsailaren 26an hartu zuen zinegotzi kargua.

SAKANA

Chivite izanen da PSNko lehendakari-gaia

Alderdiaren abenduko kongresuan Idazkari Nagusi posturako aurkeztuko du bere burua

Heldu den urteko maiatzaren 24ko foru hauteskundeetan PSNk aurkeztuko duen zerrenda burua Maria Chivite izanen da. Sozialista nafarrek igandean hautagaia aukeratzeko hauteskunde primarioak izan zituzten. 5.411 afiliatu eta zale sozialistek zuten parte hartzeko eskubidea eta haietatik %79,61ek erabili zuen aukera. Maria Chiviteren alde %58,59k egin zuen eta Amanda Acedoren alde, berriz, %41,41ek. Sozialistek Altsasun duten egoitzatik boto eskubidea zuten 26 herritarretatik 22 pasa ziren eta haietatik 19k Acedoren alde egin zuten, bik Chiviteren alde eta batek zuri bozkatu zuen.

gertutik >>

Ainara Ladron Urbietak

28 auzipetuetako gazteetako bat

Torturatuak izan zirenen?

Bai, aurretik milaka herritarrek pairatu duten bezala. Autoinkulpazioak eta beste batzuk inculpazioa lortzeko erabiltzen dute. Zerrenda beltzak osatzeko. Gure tortura saioetatik irten ziren izenak, abenduaren 6ko sarekadan atxilotu zituzten. Euskal Herrian abian da prozesu berri bat eta prozesu guztietan gazterriaren freskotasuna eta indarra behar dira aurrera egiteko. Halakoekin beldurra zabaldu eta askapen borroka moteldu nahi izaten dute gazteria bera motelduz. Baina ez dute lortzen.



Epaiketa hasi da, aurretik eta auzitegian salaketa. Zergatik?

Ez gaituzte 28ak bakarrik epaituko. Ondoren ere gazte gehiago epaituko dituzte. Herri oso baten kontrakoa da eta Auzitegi Nazionalaren aurrean badugu zer esanik. Irailaren 14an Gernikan Herriarren Adierazpena publiko egin genuen, herrietako Libre lantaldeen bidez lantzen ari dena. Herri osoak aurre egitea beharrezkoa dela ikusi dugu. Herriak batzen dituen aldarrikape-

nak dira, lehenik, Auzitegi Nazionalak ez du gu epaitzeko inolako zilegitasunik, hori Euskal Herriak du. Bigarrenik, torturen salaketa egitea. Eta, azkenik, epaiketa politikoak gelditzea. Elkartasunetik konpromisora salto egiteko eskatu genuen eta sinadura bilketa egiten ari gara herriz herri.

Desobedientzia zibilerako deia ere egin zenuten?

Argi dugu erasoak erantzuteko eta eraikitzeke jendarteak duen tresnarik eraginkorrena dela. Epaietari desobedientziaren bitartez erantzun nahi genion. 28 gara eta 28 modu ezberdin daude desobeditzeko. Loiolan gelditu ziren bost gazte epaiketara joan gabe. Orduz geroztik Imanol Salinas preso da. Epaitzean ere desobedientzia jarriera hartu dugu. Epaiketa hasterakoan konponbidearen aldeko kar-

telak erakutsi ziren eta bizkarra eman genion epaileari. Epaiketa ordu batzuk beranduago hasi zen. Tortura salaketak ere egin ditugu Auzitegi Nazionalan, gure adierazpenekin eta polizia deklaratu zuten bitartean tortura saioetan hartzerak behartutako posturak irudikatu genituen. Astakeria bat da torturatzaileak deklaratu bitartean gu aretoan egotea.

Garagarriean akusazio beragatik 40 gazte absolbitu zituzten. Zer espero duzue?

Ustez gu haien segida ginen. Absolbitu zituzten. Ez du zentzurik gu epaitzea. Baina epaiketa politiko bat da, Euskal Herriko prozesuari oztopa jartzeko. Gertatu daiteke gu zigortzea, oztopoak jartzeko. Guk argi dugu Euskal Herria eraikitzekeko prozesuan aurrera egin behar dugula.

>> Etxarri Aranatz

Etxarri Mugi ekimenak bideo berri bat grabatu du

Azaroaren 9aren aurretik publiko egin nahi dute Euskal Herriaren eta Espainiaren dibortzioa irudikatu nahi du

Bideo berri baten grabazioan sartuak egon dira Etxarri Mugi ekimenekoak. Herri dinamikak suspertu nahian aurretik ere bideo lanak egin ditu ekimenak: *Gora herri askak* (2011-05-07) eta *Etxarri mug* (2013-07-03). Aurrenekoan bezala, oraingoan ere bideoaren kanta Katalunian aukeratu dute: Mali Vanili taldearen *Espanña cariño lo nostre no funciona. 8 apellidos vascos* filma gogorazirikodute irudiak. Horregatik, 10 egunetan, Etxarri Aranatz, Lakuntzan, San Migelen, Leitzaan, Zumaian, Astigarragan eta Ondarroan grabatu dituzte irudiak; eta ikusmina sortu dute. Guztia, Euskal Herriaren eta Espainiaren arteko dibortzioa irudikatzen.

Dagoeneko hura editatzen hasiak dira. Katalanezko kantuareneuskarazko bertsoia Altsasuko Itxura



Etxarri mug bideoaren grabazioko une bat. ARTXIBOA

estudioan grabatu dute. Mali Vanili taldekoak bideoaren grabazioan parte hartu dute; "ilusio berezia sortu die beraien kantetako bateuskaraz grabatu izana" esandiguteki menetik. Kataluniako herri-galdeketa aurretik zabaldu nahi dute bideoa Interneten.

Helburuak

Etxarri Mugi dinamikak bideo horiekin lortu nahi duena, lehenik Etxarriko herri dinamika susper-

tzea da. Aldi berean, auzolanaren garrantziaz jabeaz nahi ditu herritarrek, bideoak auzolanen egin baitituzte. Autogestioaren balioa ere aldarrikatu dute, euren baliabidez eta inolako diru-laguntzarik gabe grabatu baitituzte bideoak. Etxarri Mugi ekimenak gizarite kritika eta aldarrikapena izan ditu gainagusi bere bideoetan. Beti ere, giro onean eta umoretsuan adin ezberdinetako herritarren arteko harremanak sustatuz.

SAKANA

PPren ustez herritarrek atez atekoa ez dute onartu

Hondakin bilketa sistema berria dela eta, PPren Sakana-ko eskualde batzordeko buru Juan Antonio Extremerak adierazi du herritarrek ez dutela atez ateko sistema onartu. Mank-eko buru Aitor Karasatorre Muguruzari erantzunez esan du "sistemaren zikinkerriaren ardura auzokideen bizkar uztea zuzurtziaz gabea" dela. Extremeraren iritziz Mank-ek pertzen barruan ez dauden poltsak ez ditu jasotzen eta horrek sortzen du zikinkerria. Karasatorreraren iritziz "Extremerak herritarrek babestu beharrean, gaizki egiten duten, briziklatzen ez duten herritarrek besterik ez ditu babesten". Mank-eko buruak nabarmendu duenez, sakandar gehienek ongi erabiltzen dute hondakin bilketa sistema berria.



SAKANA

Ekintzaile izan nahi duten langabeak behar dira

SNEINN programaren bigarren promozioan parte hartu nahi dutenek izena emateko aukera dute dagoeneko. 15 pertsona aukeratu dituzte

Abendua bitartean SNEINN programari buruzko langabeendako informazio saioak egiten hasiko dira, interesatuak dauden eta programan parte hartzeko prest dauden langabeak aukeratzeko. Ondoren, prestakuntza saioen txanda etorriko da eta, horretarako, Finlandiatik ekarritako metodologia erabiliko da. Irailean hastekoak baziren ere, egoki prestatzeko hasiera atzeratzea erabaki dute antolatzaileek eta orain ekin diote hautagaien bilaketari.

Mondragon Team Academy (MTA), Mondragon Ikerketa eta Kudeaketa eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren elkarlanetik sortu dute SNEINN programa. Sakanako 2020 Plan Estrategikoan lantzen diren akzioen ildoekin bat egiten

du. SNEINNen helburuen artean daude langabeak sentsibilizatzea eta kontzientzia hartzea. Aldi berean, MTAREN metodologiarekin prestakuntza jasoko dute. Talde lana egiten ikastea eta ideia berriak sortzeko bidea emanen dizkie horrek. Gainera, pertsona horien gan kultura aldaketa bat eragitea eta jarrera proaktibo bat sortzea bilatzen du SNEINN programak.

Batuta

Izen hori eman zioten taldeari SNEINN programako aurreneko edizioan parte hartu zuten 15 sakanadarrek. Iraila eta ilbeltza bitartean jaso zuten prestakuntza. Gauregun lauzpabost pertsona lanean dabilta bizpahiru proiektutan. Guztiek ere helburu bera dute: Sakanan bertan euren etorkizuna ahalbideratuko dien prozesu bat sortzea.

SNEINNen lehen edizioa hiru fasetan banatu zen. Aurreneko




Joan den urtean egin zen SNEINN programaren lehen edizioa. Bigarreneko langabeak bilatzen ari dira. UTZITAKOIA

fasean, garila eta iraila bitartean, programaren diseinua egin eta langabeak aukeratu zituzten. Bigarren fasean (lastaila-ilbeltza) taldea sortu eta eginez ikasi metodologiaren bitartez, pertsona moduan eta taldearen funtzionamendua eredu-

ren bitartez, taldekako proiektuak garatu zituzten. Azken fasean (otsaila-apirila) aurrera jarraitzea erabaki zuten pertsonekin lan egin zuten trebatzaileek, batez ere proiektu zehatzen garapenean babes bat emanez.

Informazio gehiago

sneinnsakana@gmail.com edo 685 759 056.



Euskaraz hitz eginez ongi pasatzeko aukera ere bada. ARTXIBOIA

Gurasoak euskara praktikatzeko taldeetan izena ematera gonbidatu dituzte

Mihia euskaraz askatzen hasi dira dagoeneko 40 sakanadar baino gehiago Mintzakide programaren baitan. Astean behin, ordu batez, euskara praktikatzeko hitzorduak dituzte guztiak. Euskaraz hitz egiteko ohitura halakorik ez dutenak elkartzera dituzte Mintzakidek, denak hizkuntza berean hitz egiteko helburuz.

Aita-ama asko euren seme-ala-

bekin euskaraz hitz egiteko trebetasuna eskuratu nahi dute eta, horrela, hizkuntza egoki transmititu. Horregatik, martxan jarri da Gurasolagun. Plazan, parkean, asteburuko txangoetan... elkartzera dira, guztiak ere familia edo lagun giro guztiz euskalduna sortu asmoz. Sakanako zenbait ikas-

maten ari dira Gurasolagun ekimenari abiarazten.

Informazioa eta izen ematea

Sakanako AEKren Itsasi euskaltegia: 948 468 258, 607 624 392 edo sakana_mintza@aek.org



Donostiarako deia, goi tentsioko linearen kontra

Larunbatean, 12:00etan, Donostiako Bulevarretik abiatuko da Autopista Elektrikorik Ez! plataformak deitutako mobilizazioa

Red Eléctrica Española (REE) enpresak Sakanan barna Deikaztelu eta Itsaso lotuko dituen goi tentsioko argindar linea eraiki nahi du. Ingurumen baimenak lortuak ditu. Egitasmoaren kontra dagoen Autopista Elektrikorik Ez! plataformatik atzerara ere, egitasmoa bertan behera uzteko eskatuko dute larunbatean kalean.

Donostian argindar linearen egitasmoa bertan behera uzteko eskatuko du plataformak. Eta harekin batera Lurkide manifestua sinatu duten 247 erakunde eta makina bat herritarrek ere. Plataformatik gogora ekarri dute egitasmoari 14.000 alegazio aurkeztu zaizkiola eta oraindik ez dutela erantzunik jaso. Egitasmoak ukitutako 40 udaletako 174 hautetsikere kontrako jarrera azaldu dute la gogoraz dute.



Errigora, Erriberako euskalgintza eta nekazaritza laguntzeko asmoz

Heldu den astean AEKko euskaltegia, Altsasuko Zelandi eskolan eta ikastoletan Errigorako elikagai saskiak eskatzeko aukera izanen da

Errigorak martxan jarri duen kanpainak *Nafar hegoaldeko uzta, euskarari puzka* leloa du. Bi premiari erantzun nahi die kanpainak. Alde batetik, euskara ofiziala ez den Nafarroako hegoaldeko euskalgintza laguntzea. Bestetik, inportazioengatik behera egin dute nekazaritza produktuen prezioek eta kanpainaren bidez Erriberako ekoizleak lagundu nahi dira. Elikadura burujabetzan bidea egin eta euskarari hauspoa ematea da Errigoraren helburua. Kanpaina Zazpiak Bat, Sortzen, AEK, Ikastolen Elkarte eta Errigoraren elkarlanaren fruitu da.

Erriberako piper, zainzuri, orburu, olio, kardua, borraja eta abarrez osatutako zarea egin dute

Errigora

Elikadura subiranotasuna sustatzen du, Nafarroako hegoaldeko ekoizleak eta Euskal Herriko kontsumitzaileak harremanetan jarritz, auzolanean. Udazkeneko kanpainarekin Erriberako euskalgintza laguntzen da. Baina Errigorak urtean barna Eskutik Eskura ekimenari indarraren du. Erriberako produktuak ekoizle prezioan eskuratzeko aukera ematen du ekimenak.

Errigorak eta 50 eurotan daude salgai. Auzolanean lan egiten denez, saski bakoitzetik irabazten den %25 Nafarroako hegoaldeko euskalgintzari bideratuko zaio.

Heldu den astean Sakanako aipatu ikastetxeetan eta euskaltegia saski eskaerak egiteko



Nafarroako AEKko kideek Errigoraren alde egin dute. UTZITAKOIA

aukera egonen da.

Pasa den udazkenean 8.000 saski saldu ziren eta euskalgintzarako 112.000 euro bideratzea lortu zen. Diru hori Lodosako ikastolak bere ekonomia egoera larria onbidatzeko erabili zuen. Erriberako AEKk matrikulazio kanpaina eta beka sistema jarri zuen martxan bere puskarekin eta, azkenik,

Bideoa

<https://www.youtube.com/watch?v=Jsu0S7LRyi4>

Euskaraz Bizi eta Ikasi ekimenak bere jardueretarako baliabideak eskuratu zituen.

Atletismoa

Irurtzunen korrika

14. Sakanako Herri Lasterketa-Burundesa Sari Nagusia jokatuko da larunbatean Irurtzunen. 16:00etan kategorია txiki probak eta 17:00etan proba nagusia (7,5 km)

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak aurten Irurtzuna eraman du Sakanako Herri Lasterketa-Burundesa Sari Nagusia. Proba antolatzeke Dantzaleku-Sakana klubaren, Irurtzungo Udalaren eta Irurtzungo Erga Larreak, Guan, Pikuxar, Iratxo eta Jubilatuen elkarten laguntza izan du. Beste behin, Burundesa izango da babesle nagusia.

Sakanako Herri Lasterketarekin atletismoa sustatu nahi da, bereziki krosa. Aldi berean, Sakanako herriak ezagutarazi nahi dira, eta bertako kultura eta hizkuntza, euskara, sustatu nahi dira. "Lasterketa asko antolatzen dira Sakanan. Horrek Sakanako Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Saria antolatzera eraman gintuen. Aurreko urtean ere 97 sakandarrek hartu zuten parte Behobia-Donostian. Sakanako Herri Lasterketa edozeini zabalik dago, baina bereziki sakandarreri" adierazi du Amaia Gerrikagoitia kirol teknikariak.

Herriguneko zirkuitua



Burundesako Javier Fonseca, Mank-eko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitia, Pikuxarreko Ipi Lizarragak eta Irurtzungo zinegotzi Felix Rubiok aurteko lasterketa.

Lehenik eta behin kategorია txiki probak jokatuko dira, 16:00etan. Horretarako Irurtzungo plaza erdigune hartuta zirkuitua diseinatu dute. Aurrebenjaminen 200 m, benjaminen 400 m eta kimuek 900 m osatu beharko dituzte. Proba bukatuta, 16:45ean, haurren merendua burutuko da.

Helduen proba 17:00etan abiatuko da, Irurtzungo plazatik. Herrian barna 3,750 km-ko zirkuitua prestatu dute. Kadeteek buelta eta erdi eman beharko diote (5 km) eta jubenilek, seniorrek eta beteranoek, aldiz, 2 buelta (7,5 km). "Ahalik eta zirkuiturik lauena egiten saiatu gara, Irurtzunen orografia kontuan hartuta, gauza nahiko zaila. Plazatik Amaia kalerantz abiatuko dira korrikalariak, igerilekuetarantz, eta Lizarra kaletik berriro plazara iritsiko dira. Bi Haitzpe kaletik jarraituko dute, kasik ibairaino eta industrialdetik buelta hartuko dute, Bi Haitzpe kaletik atzera ere plazara iristeko. Zirkuituari bi buelta emango zaizkio eta kadeteek bat eta erdi. Kadetei peto bat jarriko diegu, ezberdintzeko" azaldu zuen Pikuxarreko Ipi Lizarragak, korrikalaria ere badenak. Nahiz eta korrika egiten duen jendea egon, Irurtzunen ez dela lasterketarik antolatzen gaineratu zuen, eta horregatik pozik hartu dute Sakanako Herri Lasterketa Irurtzunen jokatzea.

Eguraldia lagun

Eguraldi ona iragartzen dute bihar, eta horrek parte hartzean eragina izango du. "60 neska-mutiko eta 100 heldu inguru espero ditugu" azaldu dute. Lasterketan parte hartzea animatu dituzte sakandarrak. "Behobia-Donostia proba prestatzeko ere egokia izanen da" gaineratu dute antolatzaileek. Amaia Gerrikagoitia proba antolatzeke Ipe Lizarragak, Aingeru Mikeo kultur teknikariak eta Irurtzungo Udalak izandako prestutasuna eskertu zuen. "Gainera, Irurtzungo komertzio eta denden eskuzabaltasuna eskertu nahi dut, erantzun bikaina izan baitugu". La Burundesarendako esker oneko hitzak izan zituen. "Ekimenak aurrera ateratzeko mundu guztiak eman behar du bere laguntza eta gu Sakanako Herri Lasterketa babestearekin kontentuz gaude" erantzun zuen Burundesako Javier Fonseca.

Sariak eta zozketak

Lehendabiziko hiru, gizonzko- eta emakumezko-entzako, Irurtzungo komertzio eta dendek oparituta bertako produktuen loteak banatuko zaizkie, eta lehendabiziko hiru sakandarrei ere. Lehen kadeteek, lehen jubenilek eta lehen beteranoek ere (35-49 urte, 50-59 urte eta 60 urteetatik aurrera) ber-

Izena ematea: aurretik eta egunean bertan

Izena ematea zabalik dago www.kirolprobak.com webgunean, gaur 14:00ak arte (10 euro txip horia dutenek eta 11 txip txuria edo alokairuzkoa dutenek). Baina aurtun, nobedade moduan, egunean bertan ere izena eman ahalko da, Irurtzungo udaletxean, 14:30etik 16:30era (12 euro txip horia dutenek eta 13 txip txuria edo alokairuzkoa dutenek).

tako produktuen loteak jasoko dituzte. Bestalde, kategorია txiki-koetako lehenbizi hiru hiru domina jasoko dute, kategorია guztietan: aurrebenjaminak, benjaminak, kimuak eta haurrak.

Horretaz gain, bertako dendek emandako makina bat lote banatuko dira. "Ia guztiak joango dira zerbaitekin" dio Gerrikagoitiei. Eta aparte, guztien artean ondoko produktuak zozketatuko dira: Irurtzungo jatetxean bazkariak eta afariak, Peio Goikoetxeak eta Oreka fisioterapiak emandako masajek eta Irurtzungo merkatariek oparitutako makina bat opari. Proba bukatzean auzatea izango da korrikalariendako.



Peio Bergarak Dantzaleku-Sakanako ardurak utziko ditu

Taldeak errelebo behar duela uste du, "idea berriekin etorriko den jendea"

Peio Bergarak urte asko daramatza Dantzaleku-Sakana atletismo taldeko juntan eta Onddo lasterketaren antolakuntzaren ondoren ardurak utziko ditu. "Jende berriari tokia egiteko ordua iritsi da. Urte askotan pertsona berberak gaude juntan eta Dantzaleku-Sakanak errelebo behar du, ideia berriekin etorriko den jendea. Hemendik jendea iritzi egiten diot, juntan lan egiteko hurbil dadila. Egun jende askok egiten du korrika, eta ea ardurak hartzen animatzen diren. San Silbestre gertu dago eta taldera hurbiltzeko aukera polita dute" azaldu du Peio Bergarak. Norbaitek hurbildu nahi badu, www.dantzalekusakana.com web orrian ditu kontaktuak.

Altsasuarrak urte luze hauetan laguntzaile izan dituenak eskertu nahi ditu. "10 pertsona izan ditut beti alban edozein ekitaldi edo proba antolatzerakoan. Bihotzez eskertu nahi diet emandako laguntza eta babesa" adierazi du.



Inoizko Onddo lasterketarik arrakastatsuenak

7. ONDDO LASTERKETAN 113 EMAKUMEK ETA 167 GIZONEZKOK HARTU ZUTEN PARTE, ETA 35. ESKOLA ARTEKO KROSEAN 138 NESKA-MUTIKOK

Pozik. Oso pozik daude Dantzaleku Sakana Atletismo Klubeoak. Eta ez da gutxiagorako. Beste behin errekor guztiak apurtu dituzte Onddo Lasterketarekin. 280 korrikalari lehiatu ziren, aurreko urtean baino 25 gehiago. Baina ikusgarriena emakume korrikalarien gorakada izan da. "Lehendabiziko Onddo Lasterketan 6 emakume aritu ziren. Aurreko urtean 55 izan ziren eta sekulako arrakasta iruditu zitzaigun. Eta aurten kopurua bikoiztu da. 113 emakume parte hartu zuten. Sekulakoa. Eta pozez zoratzear gaude, gure helburua atletismoa sustatzea baita, baina emakumeen parte hartzea bulkatzea, bereziki" adierazi digu Dantzaleku Sakanako Peio Bergarak.

Izan ere, guztia atera zen ongi. Eguraldia, primerakoa. Ibilbidea -San Pedro, Baso Itxi, Dantzaleku...- eta basoa ederrak, lohirik gabe eta korrika egiteko elegantea. Edozeinek egiteko moduko proba zen (6,6 km), ez lehiakorra eta sailkapenik gabekoa, helburua korrika egitea baitzen.

113 emakume

Emakumeen parte hartzearen bikoiztea zen hizketa gaietako bat. "Emakume askok egiten dute korrika, eta probetan ateratzeko beldurra kentzen ari zaie. Gainera, Onddoen lasterketa proba ez lehiakorra da eta emakumea, berez, ez da gizona bezain lehiakorra, parte-hartzea baloratzen du gehiago. Horri gehitu behar diogu korrika modan dagoela. Eta bereziki, Sakanan, mendi lasterketetara animatzen ari da jende asko. Guztia nabaritzen da eta horregatik egin du gora Onddoen Lasterketak" gaineratu du Bergarak.

Bukaeran La Vitorianak emandako berlinek eta opilak dastatu ziren eta 270 kamisetak banatu zuten. Antolakuntzak 500 ur botil banatu zituen. Horretaz gain, Juan Antonio Galarzak, Katealde Pateak, Ventorro jatetxeak eta Patxi Amillano gazteandegiak emandako produktuekin 105 produktu lote, Leku Ona jatetxean 4 bazkari eta 3 onddo-saski zozketatu ziren parte hartzaileen artean.



Emakumeen parte-hartzearen gorakada izan zen aipagarriena.



Eskolarteko Krosa ere gora

Aurretik 35. Eskolarteko Krosa jokatu zen, Foruen plazako inguruetan. Aurreko urtean 90 neska-mutiko aritu ziren, eta aurten 138. "Duela 35 urteko zenbakiatar itzuli gara. Garai hartan 130 neska-muti-

ko aritzen ziren atletismo eskolan, eta 25 monitore geunden. Baina gero beheraka egin zuen. 138 korrikalari txiki biltzea arrakastatsua da" gaineratu du Bergarak. Bukaeran 120 zuma eta La Vitorianaren 90 berlinek eta 90 opil banatu ziren.

Musika omenaldia Felipe Gorritiri

Musikari uhartearraren jaiotzaren 175. urteurrena dela eta aparteko egitaraua izan zen Uharthe Arakilen. Berta Moreno historilari eta musikologoaren bidez Gorritiren berri jaso zuten hitzaldira bildu ziren guztiak. Ondoren Uharthe Arakilgo buruhandien konpartsaren eta Iruñeko Orfeoiaren txanda izan zen. Felipe Gorriti erraldoia buru zutela elizatik musikariaren sortetxera arteko bidea egin zuten haiek eta atzetik zituzten herritar mordoak.

Duela 118 urte Gorritiri Uharthe Arakilen egindako omenaldian Iruñeko Orfeoiak abestuzituen sei piezetako bi kantatu zituen. Igor Ijurrea zuzendariak musikariaren sortetxearen ezker aldean emaku-



mezko abeslariak jarri zituen eta gizonezkoak eskuinean. Duela mende bat gizonezkoek osatzen zuten soilik orfeoia eta haiek izan ziren *Ume eder bat* kantatu zute-



nak. Erraldoiek etxaurrean dantzatu ondoren, orfeoia *Agur Jesusen Ama* abestu zuen.

Omenaldiak elizan izan zuen segida. Sinfonietta Academica

orkestrak eta Iruñeko Orfeoiak Joaquin Taboada konposatzaile nafarraren *Ave Verum* eta Felipe Gorritiren *Miserere Grande* (1882) obrak emanzituzten betetazegoen elizan.



Itxasperi bete bertso

Bihar, larunbata, 19:00etan Egiarretako Itxasperi ermitan. Ondoren, 21:30ean Egiarretako Santialde elkartearen bertso afaria

Uxue Alberdi eta Oskar Estanga bertsolariekin hitzordu bikoitza jarri du Arakilgo udazkeneko kultura agendak. Bertsolari bikotea bihar arratsaldean Itxasperi ermita erromanikoan ariko da bertsoan. Ekitaldi berezia izanen da. Ez soilik bertsozaleak bilduko dituen eraikinagatik. Horretaz aparte, bertsozaleak beraiek izan dira bertsolariei kanturako gaia eman dietenak, horretarako udalaren sare sozialak erabiliz.

Itxasperriko emanaldiaren ondoren, Egiarretako Santialde elkartearen bilduko dira bertsozaleak (20tik gora erredazioa ixtean), Alberdiaren eta Estangaren bertsoekin gozatzen.

4nek bidea egiten hasiak

Pop-rock talde berria osatu dute eskarmentua duten musikari sakandarrek: Imanol Goikoetxea (gitarra, Urdiain), Joseba San Sebastian (baxua, Lesaka/Lakuntza) eta Juan Pablo Agirre (ahotsa, Etxarri Aranatz). Hirukoteak 4nek izena eman dio taldeari. Duela urte bete biltzen hasi zen. "Ahal dugunean" zehaztu digu Agirrek, "zaila baita lana, familia eta beste uztartzea".

Musikari sakandarrek dagoeneko 8-10 kantu sortu dituzte. Agirrek esan duenez "neguan jendaurreko emanaldiekin hasi nahiko genuke, ia". Horretarako, taldea handituko dute. Dagoene-



ko haiekin aritzen da Xabier Zubeldia (teklatura, Ibarra). Bateria bat ere behar dute eta liteke-

ena da dorrobarra izatea. Jotzen hastearrekin pozik leudekeela esan digu Agirrek.

Lehiaketa

"Arrankatzeko eta gure buruari presioa egiteko", 4nek taldeak Vodafone Yu Music Talent lehiaketan izena eman du, 1.157 taldeekin eta bakarlariekin batera. Publikoak aurkeztu diren taldeen aldeko botoak 31ra arte eman ditzaizke Facebook eta Twitter bidez (profileko boto bat). Hala 30 talde aukeratuko dituzte. Ondoren epaile profesionalak finalerako hiru talde aukeratuko dituzte. Horiek 3.000na euro jasoko dituzte. Irabazleak gainera, diskoa grabatuko du eta heldu den urteko lehen hiru hilekoan Vodafone Yu Music Shows jaialdian telonero gisa ariko dira.

"Gosariak" salgai

Joseba Sarrionandia idazlea, Lakuntzan bizi den Jon Zubiaga "Osoron"-en Gose musika taldea eta Iñaki Arregi eta Juan Luis Goikolea artista plastikoen elkarlanaren fruitua da *Gosariak*. Idazlearen testuak kantu bihurtu dituzte taldeak eta beste sortzaileen lanean oinarrituta bi artista plastikoek zentzumen guztiak elikatzenko lana osatu dute: *Gosariak*. Asteburuan Gara egunkariarekin salgai izanen da, baita Durangoko Azokan ere.

bazterretik

Laida Aldaz

Chiloé

Duela hilabete eta erdi Txilen nabilen lanean, dantza munduaren alde hartan irakasten. Bitartean bidaia-tzeko denbora ere eduki dut, paisaia eta herririk zoragarriak ezagutzeko aukera izanik. Bidaia hauetako batek Chiloé izeneko irlara eramanez. Irla txiki eta polit bat, non ez den gauza gehiegi gertatzen, bizitzea da leku hartan dagoen eginkizuna.

Cucao izeneko herri txikian arte arlo desberdinetan lan egiten duten lau

pertsonekin topatzeko aukera izan dut. Santiago hirian jasaten zuten gizarte-presioa, bizi-erritmoa eta kutsadura alde batera utzi nahian iritsi ziren natura besterik ez dagoen herrialde honetara.

Pilar dantzaria izan da ezagutu dudana lehena. Larrez inguratuta dagoen etxe txiki batean bizi da eta hau ordaintzeko umeei ematen dizkien dantza klaseak aski ez direnez, ostatu batean egiten du lan ere. Pilarren ametsa dantza garai-kide talde bat irla honetan osatzea da eta talde honen bitartez dan-

tzari desberdinekin harremanetan jarri, dantza jaialdi bat antolatzen.

Paloma bere senar maputxe eta bi alabekin bizi da median duten etxe batean. Alabak ez dituzte eskolara eramaten, etxean dute ikasi beharra. Palomak artilearekin egiten du lan. Gaur egungo arropadiseinuak sortzen ditu Chiloen dauden ehun teknika zaharrak erabiliz. Herririkatik herririk doa, horietan ehuna egiten duten emakume-ek erabiltzen dituzten teknika zahar baliotsuak ikasten eta mantentzen,

baina aldi berean emakumei artilea tintatzeko dauden teknika ekologikoak irakasten.

Gonzalo eta Dario pelikuletan tekniko lanetan aritzen ziren Santiagon. Biak Pilarrek lan egiten duen ostatu berean bizi eta lan egiten dute. Dariok, horretaz gain, zinematik bat eta pailazosarioak antolatzen ditu, Gonzalok, berriz, arteaz nazkatuta bukatu zuen eta bizitzea da duen behar bakarra.

Egun batzuk haiekin igaro ondoren Santiagotik zergatik alde egin zuten geroz eta argiago ikusi dut,

hirietan jasaten dugun lehiaketa ez da hemen nabaritzen. Cucao jendea aske da, nahi dutena nahi dute egiteko, nahi duten pertsonak izateko, inori ez baitiote ezer frogatu behar. Hirietan egunero jasaten dugun informazioak guregan duen eraginaz ez gara ohar-tzen handik ateratzen garen arte, interneta eta mugikorrik ez dagoen leku batera iristen garen arte, bizitzen hasten garen arte. Hemen inork ez dizu esaten zer izan behar zaren ala zein diren zure beharrak, baten lana da hori guztia aurkitzea.

Umora antzerkia Irurtzongo zikloa ixteko

Gaur, 21:30ean Irurtzongo kultur etxean

Yllana Produccionesek gaur Irurtzungera *Actionman* lana ekarriko du; umorea nagusi den obra. Raul Cano aktorearen ideia batetik sortu zen gaurko antzezlan. Eta Cano bera izanen da emanaldiko protagonista. Hainbat pertsonaiaren larruan sartuko

da eta, horregatik, hainbat egoera bizi beharko ditu. Guztia soinuarekin bat egiten duen mimika ugariz eta berezko estiloa duen gorputzaren erabileraz lagunduta. Pertsonai nagusia bere azken misioa egiten ari den superagente espezial bat da eta horrek filmetan, telebistan eta komikietan jatorria duten hainbat egoera komiko sorraraziko ditu eszenatokian. Guztiagatik, ema-



naldia "antzerki ekintzako filma" dela diote Yllanakoek.

Irurtzongo Kultura Kontseiluak antolatatu duen antzerki zikloa gaur-

ko emanaldiarekin despedituko da. Gazteei eta helduei zuzendutako lau emanaldik osatu dute zikloa, Irurtzunen aski errotua dagoena.

Tormesko Lazaro itsumutilaren bakarrizketa

Bihar, 20:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean. Sarrera guztiak salduak daude El Brujo ikusteko

Espainiako Urrezko Mendeko literaturako obra ezagunenetakoa bat da *Tormesko Itsumutila* eleberrri anonimoa. Autobiografia moduan Tormesko Lazaroren bizitza kontatzen du, jaiotza eta miseriaren jositako haurtzarotik ezkondu artekoa. Pikarokeria eleberrien aitzindari da, hainbat elementuren bidez orduko gizartearen argazkia eskaintzen du. Gizarte haren



bizioak eta jarrera hipokritak erakusten ditu; batez ere, apaize-

na eta erlijioitsuena. Eleberraren moldaketa egin

zuen Fernando Fernan Gomezek, testua errespetatuz eta hizkuntza egokitzuz bakarrizketa bat idatziz. Rafael Alvarez, El Brujo, aktoreak jokatu du Tormesko Lazaro itsumutilaren papera eta bazterkeria, gosea eta haurtzaroko bizipen latzak ekarriko ditu agertokira. Orduko gortearen mundu ofizialaren eta herrixhearen gosearen berri ematen digu, gaur egungo errealitate-tik hain urrun ez dagoena. Ironia eta umorea erabilia garai batetik bestera, Lazarotik El Brujora salto eginez. Guztia hitz jario lasai, lirain eta amaiezinean.

Espiriturako musika

Bihar, 20:00etan Arbizuko ekokanpineko Amari yoga magiko eskolan Terry Oldfield eta Soraya Saraswati

Musikan nazioartean itzal handia duen abizena da Oldfield. Mike eta Sally anai-arrebeekin batera musikan aritzen da ere Terry Oldfield. Azken horrek eta bere bikote Soraya Saraswati kontzertua eskainiko dute bihar Arbizun. Terry Oldfieldek argitaratu berri duen *Sweet Awakenings* (New Earth Records) dis-

koa aurkeztuko du. Aurrekoetan beste hainbat musikariren laguntza izan ondoren (tartean anaia) bakarkako lana da Arbizun aurkeztuko duena.

Zeharkako txirula izanen da Oldfieldek eta Sorayak eskainiko duten emanaldiaren ardatza. Instrumentu horren soiltasuna gitarrakustikoaren, pianoaren, teklatuaren eta sintetizadorearen laguntza osatuko du. Doinu nagusiki akustikoak, ihesbide egokia.

Australian bizi den bikote musi-



kari eta yogiak, biharko emanaldiaren ondoren, etzi tailerra eskai-

niko du ekokanpinean: barne lasaitasunaren zientzia.

Momentuz Pikurock jaialdi erraldoirik gabe

Haren ordez, Irurtzongo eta Arakilgo Gazte Asanbladak kontzertu txikiagoa iragarri du

Aurten ez da Pikurock jaialdirik izanen. Dozena bat edizioren ondoren antolatzaileek, momentuz, aldi baterako gelditzea erabaki dute. Herriari bizitza emateko eta Sakana mugitzeko Irurtzunen zerbait egiteko asmoz sortu zen jaialdia, itzal handiko taldeak ekarri dituena. Euskal Herriko Musika jaialdi nagusien panoraman izena lortu zuen.

Hala ere, Domu Saindu eguneko asteburuan izanen da musika



eskaintzarik Irurtzunen. Sortu berri den Irurtzongo eta Arakilgo Gazte Asanbladak (IAGA) Gazte Eguna antolatu du azaroaren 1erako. Irurtzongo frontoian Txep, Txapelpunk eta En Tol Sarmiento taldeen kontzertuak iragarri dituzte 23:00etatik aurrera.

Altsasuko feria 40 modutara jaso

Altsasuko Mendigoizaleak taldeak antolatutako argazkirallian igandean 40 parte-hartzaile izan ziren, 34 heldu eta 6 haur. Antolatzaileek esan digutenez, argazkilari gipuzkoar asko izan ziren. Egun onarekin, kalitate handia izan zela ere ziurtatu digute. Haien lanak epaileek aztertuko dituzte orain eta zortzi sariak (helduen eta haurren mailan hiruna, ferietako argazki onena eta bazkidearena) azaroaren 8an eginen den argazkien emanaldiaren ondoren banatuko dira. Gainera, languztiak azaroaren 8tik 23ra Gure Etxea eraikinean izanen dira ikusgai.

Santano Beasainen

Bihartik eta hilabete batez, Helena Santanoren margolanak Beasaingo Aterpetabernan izanen dira ikusgai. *Viaje creativo* izenburua eman dio erakusketari pintore altsasuarrak. Eta izenburuak dioen moduan Santanok bere ibilbidean sortutako lanen aukeraketa erakutsiko du. Beraz, teknika anitzez (akrilikoa, olio eta eskultura) egindako tamaina ezberdineko obrak ikusgai izanen dira.



Non erabili

MARI JOSE ILEPAINDEGIA

ARBIZU

Garbitu, moztu eta apaindu 25 €.

FRUITIS FRUTA DENDA

IRURTZUN

10 €ko gastuarekin 2 boleto zozketarako.

EROSKI BIDAIAK

ALTSASU

%5eko beherapena, hiri hotelak eta garraio hutsen erreserbak izan ezik. Eskaintza ez metagarria.

AMETSA LIBURUDENDA

ETXARRI ARANATZ

%5eko deskontua jostailu eta puzzleetan.

LOPEZ DE GOIKOETXEA HARATEGIA

URDIAIN

50€ko erosketa eginez gero, etxeko produktua opari.

LARKA

ALTSASU

60 €tik gorako erosketetan %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketarako.

LASTAI GASOLINDEGIA

ALTSASU

0,04 €ko deskontua litroko, erregai guztietan.

FORD GABIRONDO

ALTSASU

Olio aldaketetan %30eko deskontua. %15eko deskontua lan mota guztietako eskulantetan.

JAVIER AUTOESKOLA

IRURTZUN

% 10eko deskontua matrikulan.

PATXI GALARZA

IRURTZUN

%5eko deskontua harategian eta supermerkatuan 100 €rengatik txistorra opari.



G asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 8%	euria: 8%	euria: 5%	euria: 5%	euria: 10%	euria: 15%	euria: 15%
Min: 7 Max: 23	Min: 10 Max: 22	Min: 11 Max: 24	Min: 11 Max: 23	Min: 13 Max: 20	Min: 11 Max: 19	Min: 11 Max: 21

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	28	9	0
Etxarri A.	28.4	3.3	1.1
Altsasu	27	9	1.1
Aralar	20.9	4.7	4.4
Urbasa	-	-	-

: ilargiaren aldia >>

ilgora	ilbete	ilbehera	ilberri
31	6	14	22

EGOKI VENTANAS PVC LEIHOAK KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

www.ventanasegoki.com egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Acrylcolor SISTEMA BERRIA KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Lastaileko bazkide zozketa

LASTAILEKO SARIAK:

1. Ekainberri kobazulotarako 2 sarrera, Lacturale esnea eta yogurtak, Gaztezulo aldizkarian 3 hilabete harpidetza, Artaza kanpinerako deskontu balaia eta Magana Navarra Xotarako 2 sarrera.
2. Artazako kanpinerako deskontu balaia, Lacturale esnea eta yogurtak, eta Gaztezulo aldizkarian 3 hilabete harpidetza eta Magana Navarra Xotarako 2 sarrera.
3. Artazako kanpinerako deskontu balaia, Lacturale esnea eta yogurtak, eta Gaztezulo aldizkarian 3 hilabete harpidetza eta Magana Navarra Xotarako 2 sarrera.
4. Artazako kanpinerako deskontu balaia, Lacturale esnea eta yogurtak, eta Gaztezulo aldizkarian 3 hilabete harpidetza eta Magana Navarra Xotarako 2 sarrera.

>> 11 galdera

Alex Mariñelarena
Motoziklismo pilotua

Testua: Maider Betelu Ganboa



1. Paul Ricard zirkuituan izan zenuen moto istripu larritik 8 hilabete ondoren alta eman dizute. Guztiz osatuta zaude?

Istripu oso larria izan nuen. Ia aste batean egon nintzen koma-induzituan eta gero errehabilitazio prozesua oso luzea izan da. Baina orain praktikan ia guztiz osatuta nago. Orekan nituen arazoak %90ean gainditu ditut eta oraindik erabateko oreka errehabilitatze lanekin behar dut, baina egunerokotasunean ez dit eragiten. Aurreko asteazkenean eman zidaten alta errehabilitazioan, eta aldatuta horrekin sentazioak onak dira, eta sentimenduak positiboak.

2. Nola izan dira 8 hilabete hauek?

Zalantzarik gabe nire bizitzako hilabeterik gogorrenak. Amets baten hasieran nengo: Mundialean parte hartu behar nuen, Moto2 kategorian, Tech3 taldearekin. Baina ezusteko istripu horrengatik dena joan zen pikutara.

3. Egun Tech3 taldeko kide izaten jarraitzen duzu?

Tech3 talde frantziarrarekin dudana kontratua 2014 urterako zenez, ezin gogut euren jarraitu. Aurre denboraldian eman zidaten babes guztia eta Mundial guztia beraiekin aritzeko eman zidaten aukera eskertu nahi diet. Nire kirol maila nolakoa den egiaztatze proba egitea ahalbideratzea ere eskertu nahi diet Hervéri eta talde guztiari.

4. Zeintzuk dira orain zure helburuak?

Egungo helburua fisikoki ahalik eta hobekien egotea da, epe laburrean motor gainean igo ahal izateko. Lehenbailehen lehiaketara bueltatzearan inguruko berriak

eta nobedadeak ematea gustatuko litzaidake, baina gaur egun soilik gauza bat esan dezaket, argi dudala nire helburua hurrengo urtean Espainiako Abiadura Txapelketan aritzea dela, FIM CEV Repsol txapelketako Moto 2an lehiatzea. Egitura eta taldeari buruz berririk izan bezain pronto jakinaraziko dut.

5. Fisikoki ahalik eta hobekien egoteko zer egiten duzu?

Horrenbeste pisu galtzean muskulatura ere galdu nuen, eta eskumuturrak eta sorbalda indartzeko Lekunberriko gimnasioan entrenatzen dut. Horretaz gain, korrika egitera joaten naiz.

6. Espainiako Abiadura Txapelketan aritu ahal izateko administrazioaren eta talde pribatuaren inplikazioa eskatu duzu. Proposamenik jaso al duzu?

Bilerak izan ditut, baina oraindik ezin dut ezer aurreratu.

7. Taldea izateko negoziaketetan zaude? Aukerak ikusten dituzu?

Egitura sendo baten parte izatea espero dut, nire maila berreskuratzea ahalbideratuko didana. Lehenbailehen eman nahiko nuke horren berri, baina guztia argi eta ongi lotuta izan arte ez da posiblea.

8. Istripuaren ondoren bizi izan duzun prozesu gogor honetan jende askoren babesa izango zenuen, ezta?

Bai, senitartekoen eta lagunaren erabateko babesa izan dut. Eta ospitaleetako eta errehabilitazio-mediku eta erizainek emandako laguntza eskertu nahi dut ere.

9. Bizitza beste alde batetik ikusteko balioko zizun honek.

Akatsetatik ikasten dela dio esaterak. Istripuarekin pilotuek bizi dugun munduaren errealitateaz jabetu naiz. Oso mundu zaila da gurea. Errendimendu optimoena lortzeko hainbat faktoreren menpe zaude; ez da soilik lan handia egitea, esfortzua eta ilusioa. Emaizaren zati handi bat jasotzen duzun babesaren eta zu zauden egitura tekniko eta mekanikoaren menpean dago. Nik zorte handia izan dut Targobank Motorsport egiturako kide izan naizelako. Taldeak egun emaitza bikainak lortzen jarraitzen du eta FIM CEV Repsol txapelketan erabat sendotuta dago. Nire helburua atzera ere Espainiako Abiadura Txapelketan, FIM CEV Repsolen aritzea da.

10. Larunbatean motorzaleen Navarider jai eguneko ohorezko kide izendatu zizuten.

Bai, 400 motorzale inguruk hartu zuten parte Navarider Day egunean. Nafarroatik barna 500 km-ko ibilbidea egin zuten eta Sakanatik ere pasa egin ziren. Urban, Ultzaman, Xabierren eta Los Arcoseko Nafarroako Zirkuituan geldialdia egin zuten, Iruñean bukatzeko. Los Arcosen Navarider jai eguneko ohorezko kide izendatu ninduten eta zirkuituari 9 itzuli emateko aukera izan nuen Mazda MX-5 autoarekin. Oso eskertuta nago eta pozik. Eskerrik asko motorzale guztiei, eguna poztu baitzidaten euren animoekin.

11. Zortea alde izan dezazula, Alex.

Eskerrik asko guztioi.

2015eko egutegi pertsonalizatuen eskaintza

poltsikokoak
kolorez, 300 g papera, 84 x 55 mm
plastifikatzeak: +30 €

Kiraldetako taberna
677 430 491 - ARBIZU

potsikoko bi orrikoak
84 x 110 mm, erdira tolestua

mahai gaineko egutegiak
Kolorez, 300 g paperean, piramide formatoan trokelatuta (210x100 mm).

Guaixe KOMUNIKAZIOA

Bierriko bazkideentzat %5eko deskontua 948 564 275 argi@guaixe.net